

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**33/2022 Foru Agindua, otsailaren 16koa. Onartzen duena Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 24ko 68/2021 Foru Aginduak ezarritako baldintzak bete direla; Foru Agindu horren bidez behin betiko onetsi zen zenbait baldintzarekin Donemiliagako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 2. aldaketa puntualaren espedientea, hain zuzen ere, Zuatzu Donemiliagako 1. poligonoko 284. eta 286. lurzatien lerrokadurei buruzkoa**

Martxoaren 24ko 68/2021 Foru Aginduz behin betiko onetsi zen zenbait baldintzarekin Donemiliagako udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa puntualaren espedientea, Zuhatsu Donemiliagako 1 poligonoko 284 eta 286 lurzatietako lerrokadurei buruzkoa.

68/2021 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen, haiek zuzendu eta gero, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Espedientearen osagai den testu bategina 2022ko otsailaren 8an sartu zen Aldundi honen erregistro telematikoan.

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau:

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea martxoaren 24ko 68/2021 Foru Aginduak ezarritako baldintzak; Foru Agindu horren bidez behin betiko onetsi zen zenbait baldintzarekin Donemiliagako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 2. aldaketa puntualaren espedientea, hain zuzen ere, Zuatzu Donemiliagako 1. poligonoko 284. eta 286. lurzatien lerrokadurei buruzkoa.

Bigarrena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 16a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**